

# Aresti eta bere garaia. Euskara biziberritzearen bidegileak

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, 2018ko urriaren 18an

Bilboko Udalak, Gabriel Aresti Kultura Elkartek eta Euskaltzaindiak Gabriel Aresti idazle eta euskaltzain bilbotarraren izena eta izana gogoratu dute. Bide batez, 60ko eta 70eko hamarkadetan euskal kulturetzak eta euskalgintzak bizi izan zuen aurrerakada errepasatu da. Euskaltzaindiaren egoitzan bildu dira, besteak beste, Xabier Kintana, Maite Idirin, Jokin Apalategi, Arantza Garmendia, Kepa Martinez Lagos, Iñaki Zarraoa, Jose Ramon Etxebarria eta Iñaki Aldekoa. Gainera, *Mailu biluzia* antzezlan laburra estreinatu zuten Oier Guillánek eta Iñaki Ziarrustak.

Orduko hartan, gazte belaunaldi batek hartu zien lekukoa garai bateko idazle eta kulturetzilei; inguruabar horretan sortu ziren, besteak beste, gau-eskolak, ikastolen mugimendua, *Anaitasuna* aldizkaria, Lur argitaletxea, Ez Dok Amairu, Gaur, Emen, Orain eta Danok taldeak... Sasoi horretan antolatu zen, baita, Euskaltzaindiaren 1968ko Arantzazuko biltzarra, 1964an Baionan egin zenaren segida historikoa.

Gabriel Arestik berta-bertatik bizi izan zituen gertakari horiek, eta giro berriaz blaitu zen; blaitu bakarrik ez, bera izan baitzen suspertze prozesu horren eragileetako bat. Arestiren orduko ahaleginak azpimarratu eta euskal kultura suspertu zutenen lana gogoratu da jardunaldi honetan.

Lehenbizi etorritakoak agurtu, eta jardunaldia aurkeztu dute Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, Andres Urrutia euskaltzainburuak, eta Xabier Monasterio Gabriel Aresti Kultura Elkarteko ordezkariak. Arestiren figura goraiatu beharraz hitz egin dute hirurek.

Jarraian, Oier Guillan eta Iñaki Ziarrustak *Mailu biluzia* antzerki-lana antzeztu dute.

Xabier Kintanak, Arestiren adiskide min eta garaiko lekukoak, azaldu du Gabrielelek euskara batuaren hastapenetan eta sorreran zer paper bete zuen. Garaiko giro orokorra azaltzeko Maite Idirin eta Jokin Apalategi ekintzaileek 60ko eta 70eko Euskal Herriko kaleetan zer giro bizi zen kontatu dute. Solasaldian beraien semea den Ur Apalategik lagundu die eta sasoi hartako kontakizuna umearen begiradatik ezagutzeko parada eman du.

Iñaki Zarraoak eta Arantza Garmendiak, garai hartan ikastoletan garatzen ziren metodologia, pedagogia, ikasmaterialak eta abar azaldu dituzte. Jakina, testuinguru soziopolitikoak zein zen ulertu behar da irakaskuntzan egin zen lana baloratzeko.

Jose Ramon Etxebarria irakasle, euskaltzain eta idazleak hamarkada haietan euskarazko prentsa zertan zen esan digu. Aldizkari gisa *Anaitasuna* zen oihartzun handiena zeukana, eta *Jakin* aldizkaria eduki sakonagoak eta jasoagoak euskaraz argitaratzen hasi zen. Literatura zertan zen, ostera, Iñaki Aldekoa EHUko irakasle eta editoreak azaldu du. Horrekin batera, argudiatu du borroka antifrankistan erabat murgilduak zeuden garai hartako euskaltzaleak pluraltasun handikoak zirela, eta, beraz, ez dela harritzekoa garai hartan agertzen hastea gaur arte iraun duten desberdintasunak.